



Administrazioa heziketa zikloko ikasleak lanean, Usurbilgo Lanbide Eskolan. USURBILGO LANBIDE ESKOLA

NAZIOARTEA EZAGUTU, BERTAKOA HOBETZEKO

Atzerrian jasotako eredu baliagarriak bere egitea du xede Usurbilgo Lanbide Eskolak, ikasle, irakasle zein enpresak baliatzeko

Lanbide Heziketa-ko IV. Planari jarraituz, berrikuntza, ekimena eta nazioartekotzea ditu helburu Usurbilgo Lanbide Eskolak. Hori guztia lortzeko, proiektu ugari garatzen ditu berrikuntza zein ekimenaren ildotik, baita nazioartekotzea lortu nahi dutenak ere. Egungo leloa ez dute kasualitate huts: *Txapela buruan, ibili munduan*. Eta Usurbilgo Lanbide Eskola munduan barrena dabil. Aurtengo ikasturte hasieran nabari daiteke hori.

Ordea, nazioartekotzea zertarako? «Ikasleak lan munduan

aritzeko premiazkoa da atzerriko hizkuntzak jakitea. Gero eta enpresa gehiagok eskatzen digute baldintza hori betetzeko, eta guk prest egon behar dugu», azaldu dute eskolako arduradunek. Atzerrian ibiltzeak beste errealtate batzuk ezagutu eta hartu eman berriak izateko aukera ematen dio lanbide eskolari. «Batetik, beste herrialdeetako eskarmentua ezagutzeko balio digu, eta, bestetik, guk geurea munduan zehar erakusteko aukera daukagu». Gero eta aniztunagoak diren nazioarteko harremanak baliatuz, besteak beste, erronka berriak martxan jartzeko, zerbitzu berriak eskaintzeko eta munduan zehar eskola ezagutarazte-

ko abagune paregabea dauka Usurbilgo Lanbide Eskolak.

Eta nola lortu ikasleria nazioartekotzea horri erantzuteko gauza izatea? 2012-2013ko ikasturtean martxan jarri zuten eskaintza eleantizuna. Egun, Efizientzia Energetikorako Goi Mailako Heziketa Zikloan bi modulu ingelesez eskaintzen dira. Beraz, euskara, gaztelera zein ingelesa tartekatzen dira. Hori abiapuntu izanik, irakasleak hizkuntzetan trebatzeko apustua egin du eskolak. Erronka da eleaniztasuna beste heziketa zikloetan eskaini ahal izatea epe laburrean. «Hezkuntza eleaniztunak, Erasmus programa dela medio, ikasle zein irakasleen mugikortasuna errazten du, eta beste herrialdeetako eskola zein erakundeekin europar proiektuak garatzeko aukera ematen du».

Urtero, dozena inguru ikasle atzerrian egiten dituzte praktikak Erasmus programari esker. Bada, eskolak ikastaro trinkoak eskaintzen dizkie ikasle horiei ingeles maila hobezaten. Horrez gain, beste tokietatik datozen ikasleak jasotzen ditu Usurbilgo Lanbide Eskolak hainbat enpresatan praktikak egin ditzaten. Txile, besteak beste, aspaldiko bezero dute. «Azken urteotan Txileko ehun ikasle bako gehiagok pasatu dute ikasturtea gurean, energia berriztagarriak jorratuz». Aurten ere administrazio, mekanika eta mantentzeko hain-

bat irakasle mugikortasun programak garatuko dituzte Europako proiektu ezberdinetan parte hartzeko asmoz.

TXAPELA BURUAN, IBILI MUNDUAN

Aurtengo ikasturtearen hasiera oso emankorra izan da Usurbilgo Lanbide Eskolan. Leloari jarraituz, irailla eta azaroa bitartean hainbat herrialdetan izan da: Alemanian, Danimarkan, Eskozian, Austrian eta Estatu Batuetan. Bidaia guztiak baliagarriak izan dira nazioarteko Lanbide Heziketaren

Usurbilgo Lanbide Eskolako dozena bat ikasle atzerrian egiten dituzte praktikak urtero Erasmus programari esker

egoera ezagutzeko, harremanak estuzteko eta etorkizun hurbilean garatuko diren proiektuak adosteko, baita Usurbilgo Lanbide Eskolaren oihartzuna areagotzeko ere.

Lehenengo bidaia Alemaniara izan zen. Helburu garbi bat zegoen: europar eskualdeko ordezkariek elkartzea Lanbide Heziketako lan sareak sortzeko. Oso emankorra gertatu zen irteera. Italia, Irlanda eta Suediako hainbat eskolarekin mugikortasun proiektu interesgarriak sustatzea lortu zuen Usurbilgo Lanbide Eskolak.

Ondoren, Kopenhage izan zen helmuga. Betidanik bizi-kalitate

oneneko hiriburuetako bat izan da Kopenhage, eta dagoeneko mundu osoko *smart city* garrantzitsuenetako bat bilakatu da, ingurumena errespetatuz 2025. urtean munduko lehen karbono neutraleko hiriburu izatera iritsi nahi baitu. Klimaren aldeko konpromisoa hartzeaz gain, hiriak, hazkunde ekonomiko eta enplegua sortzearekin batera, CO2 isurpenak murriztu daitezkeela azpimarratu nahi du. Eredua jasotzeaz aparte, bertako hainbat enpresarekin estutu dira harremanak eta Usurbilgo Lanbide Eskolan garatuko diren hainbat proiekturen lehen urratsak finkatu dira.

BESTE LAU BIDAIA

Ostean, eskolak Eskoziara bidaiatu zuen, irakaskuntza metodologia hobeto ezagutzeko. Glasgown aztertutako irakaskuntza sistema berritzaileak erabiltzen dituen jarduerak guztiz erakargarriak iruditu zaizkie partaideei. *Pertsonak Glasgown egiten dute* eraikina goitik behera estaltzen zuen eskolaren konpromisoa agerian uzten zuen oihaldi handi batetik hasita, irakasle, guraso zein ikasle inplikazioarekin jarraituz, eta enpresekiko duten konpromiso mailarekin amaituz, lanbide heziketaren hobekuntza iraunkorra lortzea da xedea.

Austria izan zen hurrengo norakoa. Ikasketak eta lana bateratzen dituen dual sistema austriarraren antolaketara ezagutzeko hainbat eskola eta erakunde bisitatu zituzten. Bisitatu diren eskola publiko, pribatu zein itunpekoek lan erakundeekin dauzkaten harremanak eta eskola-enpresa arteko heziketa planaren antolamendu ezberdinak ezagutzeko parada eskaini dute.

Eta udazken honetako azken bidaia Estatu Batuetako Minnesotara eramandu eskola, metodologiaren zein eskarmentuen trukatzea egiteko asmoz. «Egungo aldi arakastatsua izan da. Ederra izan da bestelako lan sistemak partekatzea, heziketa metodoak ezagutzea eta munduko beste muturrean baina eremu berean nola ari diren ezagutzea». Beraz, handia da bidaiei zerbaita. «Norako guztietan zerbitzu ikusi eta ikasi dugu». Jasotako ereduak bere egitea du erronka Usurbilgo Lanbide Eskolak.

Erreklamazioa

Informazio gehiago bildu nahi izanez gero, bisitatu ondorengo webgunea: www.lhusurbil.eus